

ALTERNATIBEN HERRIAN, SISTEMA ALDATZERA GOAZ

Egin deia zuk ere!

Alternatibak dituen herria, bizirik dagoen herria da. Horixe irudikatzeko asmoz datorren 2015eko urriaren 24ean "Alternatiben Herria" ospatuko dugu Bilbon Euskal Herriko eskubide sozialen Kartak proposatuta eta Parisko COP21n aurrean 10, 100, 1000 Alternatiben Herria antolatzeko deiari erantzunez. Aldarrikapen eta ospakizun eguna izango da, egunerokoan bizia ematen diguten hamaika proposamen handi eta txikien erakuslehioa.

Ekimen honen helburu nagusiak hauek dira:

- Euskal Herriak, herri gisa alternatibak badituela zabaltzea eta beste eredu sozial hori zehazten hastea.
- Euskal Herriko Mugimendu Sozialaren kohesioan urratsak ematea.
- Trantsizio sozial eta ekologikoa lortze bidean gizartearen aktibazio eta mobilizazio beharra azpimarratzea eta horretarako gonbita egitea.
- Alternatiben Herriaren ondoren alternatiba guzti hauek elkarlanean jarraitzea.

Gure bizitzak eta ama-lurra mehatxupean daude: desberdintasunen areagotzea, kapitalak arpilatutako aberastasun soziala, klima aldaketa, eskubide sozialen ahultzea, bazterketa sozialaren gorakada, natur baliabideen xahutzea, zerbitzu publikoak pribatizatzeke irrika, orden patriarkalaren indartzea, gure kabuz erabaki eta antolatzeko ahalmen-gabetzea, produkzio eta kontsumo eredu jasanezina,... Eta honen aurrean soluzio faltsuak bakarrik eskaintzen ditu kapitalismoak.

Baina dei hau egiten dugunok alternatibak ditugula eta jada martxan daudela erakutsi nahi dugu, sistema dela aldatu behar dena. Horregatik pertsonen beharrak erdian jartzen dituen eredu sozial berria aldarrikatzen dugu. Ongi bizitzeko, pertsonen zein herrien premiak asetzeko, gure buruak eta planeta zaintzeko, nagusi den sistema bera aldatzeko.

Alternatiben Herrian 6 ardatz egongo dira, 6 auzoetan banatuta. Ekonomia eredu, natura, bizitzaren iraunkortasuna, aniztasuna, ondare komuna, eta demokrazia, burujabetza eta partehartzea. Ardatz hauetan dozenaka alternatiba ikusaraziko ditugu: ekonomia sozial, solidario eta eraldatzailea, elikadura burujabetza, ekonomia feminista, kontsumo arduratsua, prozesu partehartzaileak, aniztasunaren kudeaketa, ...

Agiri hau sinatzen dugunok Alternatiben Herrian parte hartzera eta dei

hau zabaltzera gonbidatzen zaituztegu. Parada ederra daukagu bizirik gaudela adierazteko eta alternatibak ditugula erakusteko.